

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko maiatzak 30

Usurbil, 21. Zenbakia

**Nongo ura edaten
duzu zuk?**

HILDAKOAK

1997-5-17
Lucia Igual Vicario
 73 urte
 Santuenea



1997-5-27
Silvano Puertas Andres
 61 urte
 Kaleberri

Orain duzu aukera!

Telefonikak bidaltzen dituen fakturak euskaraz jaso ditzakezu, Horretarako, faktura telefonikara bidali edo 900131004 telefonora dei dezakezu.

Anima zaitetz!

Bai, esan?

- Udala
- Udaltzaingoa
- Anbulategia
- Udarregi ikastola
- Agerialdeko ikastetxea
- Oiardo kiroldegia
- Zumarte musika eskola
- Etumeta euskaltegia

EZKONTZAK

Jose Ignacio Irazabal
 (Eguzkitzaldea)

eta

Belen Corchete
 (Orereta)
 (1997-5-17)

JAIOTZAK

Iratxe Angulo Galatas
 (1997-05-10)
 (Santuenea)

Ibai Markos Huizi
 (1997-05-10)
 (Kaleberri)

Alazne Odriozola Rojo
 (1997-05-21)
 (Aginaga)

EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.10	07.35	07.55	07.40	07.00	07.25	07.30	07.55	08.15
07.40	08.05	08.25	07.10 *	07.20	07.45	08.30	08.55	09.15
08.00	08.25	08.45	07.15	07.35	08.00	09.30	09.55	10.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	10.30	10.55	11.15
09.00	09.25	09.35 *	08.15	08.35	09.00	11.30	11.55	12.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	12.30	12.55	13.15
10.40	11.05	11.25	09.15**	09.25	09.50	13.30	13.55	14.15
11.05	11.30	11.40*	09.45	10.05	10.30	14.30	14.55	15.15
11.40	12.05	12.25	10.20**	10.30	10.55	15.30	15.55	16.15
12.40	13.05	13.25	10.40	11.05	11.30	16.30	16.55	17.15
13.05	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	17.30	17.55	18.15
13.40	14.05	14.25	12.20 *	12.30	12.55	18.30	18.55	18.15
14.40	15.05	15.25	12.45	13.05	13.30	19.30	19.55	19.15
15.00	15.25	15.35**	13.45	14.05	14.30	20.30	20.55	20.15
15.40	16.05	16.25	14.25**	14.35	15.00	21.30	21.55	21.15
16.40	17.05	17.25	14.45	15.05	15.30	22.30	22.55	22.15
17.05	17.30	17.40**	15.45	16.05	16.30			
17.40	18.05	18.25	16.25**	16.35	17.00	Zarautz	Usurbil	Donostia
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30	07.00	07.10	07.35
19.40	20.05	20.25	17.45	18.05	18.30	07.45	08.05	08.30
20.00	20.25	20.35**	18.25**	18.35	19.00	08.45	09.05	09.30
20.30	20.55	21.15	18.45	19.05	19.30	09.45	10.05	10.30
21.40	22.05	22.25	19.45	20.05	20.30	10.45	11.05	11.30
22.00	22.25	22.45	20.45	21.05	21.30	11.45	12.05	12.30
			21.15	21.35	20.00	12.45	13.05	13.30
						13.45	14.05	14.30
						14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30

*Oriaraino bakarrik

**Aiaraino joaten da

*Oriotik irtetzen da

**Aiatik irtetzen da

37 19 51

36 11 12

36 20 13

36 12 16

36 38 95

37 24 98

37 15 94

37 20 01

• Taxi geltokia

• D.Y.A.

• Gurutze Gorria

• Gure Pakea egoitza

• Gure Elkarte egoitza

• Arrate egoitza

• Eusko Tren informazioa

• **Noaua!** aldizkaria

36 21 78

46 46 22

27 22 22

37 32 28

37 17 51

36 63 40

47 09 76


36 03 21



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria

3 3 2

usurbildar bazkide ditu
Noaua!-k
 Zu ere egin zaitetz bazkide!



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
Noaua.mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.

Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagoia
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde eta
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**
Arantxa Usarralde, Aitor
Pikabea eta Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua: Olatz
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa: Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banaketak:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

PORTADA: Urdaiaga eta Txokoalde artean dagoen Erroizpeko presa.



Gipuzkoako Eskola Txikien eguna

Karmele Karrera

Zubietak eta Santueneko herri eskoletako maistra

Gipuzkoako Eskola Txikiak antolatzen dugun festa egunaren X. edizioa "Eskola txikiak bizirik" lelopean ospatuko da.

Mugimendu hau herri txikieta-ko eskolak suspertu, indartu eta mantentzeko asmoz sortu zen duela hamahiru bat urte. Herriko dinamikan eta haurren heziketan eskolak duen garrantziaz jabeturik, irakasle talde batzuk biltzen hasi ginen Eskola Txikien antolakuntza berezia helburutzat hartuta. Egoera berezi honi irtenbide egokia eman nahian, eta irtenbide honetan beti ere kalitatezko hezkuntzaren atzetik alderdi pedagogikoetan sakonduz, lan bateratua egiten hasi ginen.

Zailtasunak asko izan arren, eta urteak pasa ahala, helburua baztertu orde, sendotzen joan zen Euskal Herrian lan taldeak sendotu ziren gisara.

Era honetan, Eskola Txikietak irakaslego osoa egoera berdintsua bizitzen ari zenez, guztion batasunaren ondorioz, etekin garbi bat lor zitekeela ikusi genuen.

Hala, 87-88 ikasturteko martxoaren 11ean, Eskola Txikien egoeraren deskribapena eta hura hobe zezakeen plangintza azaldu zitzaizkion Hezkuntza Saileko ikuskari orokorrari,

Zarautzen buruturiko lehenengo bilera.

Gure Hezkuntza Proiektuan, gurasoek, herriak, irakasleak, ikasleak eta udalak duten garrantziaz jabeturik, "Eskola Txikiak Bizirik" izeneko errebinkazio kanpainari ekin genion. Bertan, aipaturiko sektoreei, gure errealitate ezezagunaren deskribapena eta gure helburuaren hedapena zuzendu zitzaizkien.

Ikasturte hartako ekainean, Bidegoiango herrian ospatu genuen lehenengo jaialdiarekin amaitu zen kurtso hartako kanpaina. Geroztik, urtez urte, hainbat herri txikitik ospatu izan dira gure jaialdiak. Aurtengo honetan Adunan ospatuko da ekainaren 8an, eta bertan bilduko diren eskola guztien artean, Aginaga, Santuenea eta Zubietako eskolak ere izango dira.

Bertara hurbilduko direnentzako egitaraua prest dugu dagoeneko: txistulariak, eskola guztietako haurren emanaldiak, bertsolariak, bazkaria, euskara-okea, trial-sin, eskulanen erakusketa, Super-1eko gaztelu puzgarriak...

Beraz, ekainaren 8an Adunan ospatuko dugun jaialdirako gonbitea luzatzen diet usurbildar guztiei.

USURBIL
O P T I K A



Udako eskaintza berezia!
Lentilen likidoak %17ko deskontuarekin
Eguzkitako betaurrekoak %10eko deskontuarekin

Irazu kalea, 9-11, 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69 (Gipuzkoa)

UKE EZIN H E

ZENDOIA - ENEA



TABERNA



Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaietakoak,
eguneroko menuak eta
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25

i ka-mika

Ika-mikako leku hau zuretzat erretserbatuta dago. Kexak, aholkuak, zorionak, eskerronak, salaketak... edozer gauza idazteko aukera duzu. Beraz, ez gelditu hitzetan soilik, zure iritzia denoi interesatzen zaigu.

Idatzi beldurrik gabe!

xirrikitutik



1986ko maiatzaren 1ean erre zen Orbeldi zentralakoa da horma hau, eta hortxe goian, gainean hazi da pinu hori. Gauza bitxia, baina horrelakoak gertatzen dira noizean behin.

A ze oilaskoa oilasko biltzailer goiztiarrek daramatena! Euskal labelekoa izateaz gain Guinness liburuan saritzeko modukoa ere izango da. Aurten oilasko biltzailerak inoiz baino lehenago hasi dira festan. San "despedida de soltero" ospatu zuten joan den maiatzaren 24an. Puntta oiloloka oilasko bihurtuko omen zaigu laister!



Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

Haur jantziak



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43



San Esteban kalea, 1
Usurbil

Tlf 36 00 80



MARIBI ARROSPIDE ITURRALDE
Urtinea baserrian jaio zen 42 urteko saneste-
bandar hau, nahiz eta gaur egun Santuenean
bizi den. Bi seme-alaba ditu (Ainhara eta
Arkaitz) eta denborarik gehiena lore eta landa-
reen artean ematen du.



Noiztik zabilta Urtineako lorategian lanean?

Uste dut betidanik. Nire aitona lorezaina izan zen, aita ere bai. Eta noski, nik ere tradizioariekin jarraitu dut. Senideekin aritzen naiz lanean.

Eta beti lan egin duzue loreekin?

Ez. Nire aitona eta aitak baratzeko landareekin lan egin zuten. Baina duela 25 urtetik hona lore eta landareekin hasi ginen lanean.

Tratu desberdina behar al dute landareek?

Noski. Batzuk oso delikatuak dira eta. Adibidez, lore batzuei ezin die eguzkiak jo. Beste batzuei, berriz, hostoak ezin zaizkie busti... Delikatuenak barruko landareak dira: Bideta afrikarra, Begonia rexa...

Eta noiz saltzen da gehiago?

Batez ere udaberri eta udan, orduan izaten baitira ezkontza gehientsuenak. Udazkena ere garai ona izaten da. Eta gutxienean, berriz, abenduan. Hil honetan ia ez da inor ezkontzen.

Eta ezkontzarako loreak nork aukeratzten ditu?

Normalean neska eta bere ama etortzen dira. Senargaia ez da ausartzen horrelako erabakiak hartzen.

Elizak ere apaintzen omen dituzu.

Bai. Asteburuetan hori egiten dut. Elizara joan eta lorez apaindu. San Estebango ermita dagoeneko buruz ikasia dut, hainbeste jende ezkontzen da bertan! Usurbilgoez gain, Lasarte eta Donostia aldeko batzuk ere apaintzen ditut. Eliza batzuetan beraien esaten dizute non jarri ditzakezun loreak.

Kotxeak ere zuk txukuntzen dituzu, ez da?

Bai, horiek ere bai. Goizean hemendik pasatzen dira eta ziztu biziari ateratzen dira eliza aldera ezkongia eraman asmoz.

Ezkontzaz gain, noiz saltzen duzue gehien?

San Balentin egunean. Egun horri guk "gizonen eguna" deitzen diogu, emakumerik ez delako agertzen egun horretan. Eta ia denek larrosa gorriak erosten dituzte.

Emakumeek ez al dute lore-sortarik oparitzen?

Lagunei edo amari bai; baina gizonetzkoek gutxi. 100etik batek edo. Alderantziz, gizonetzkoek aspaldi honetan asko ikasi dute loreak oparitzen, nahiz eta aukeraketa zure esku jarri. Hala ere, oraindik emakume helduak dira erosle onenak.

Behin lorea moztu ondoren, zenbaterako bizi du?

Hori lorearen arabera da, baina orokorrean, udan 8 eta 10 egun bitartean. Neguan bi edo hiru aste bitartean. Beti ere uretan eta toki freskoan dagoela.

Eta aspirinarik edo erabiltzen al duzu?

Ez. Ez dute ezertarako balio. Niri behintzat ez didate inolako emaitzarik eman.

Egia al da loreei hitz egitea ona dela?

Nik behintzat ez diet hitz egiten! Horixe behar genuen! Askotan izugarriak esan bai! Baina pertsona askorentzat loreak zaintzea lasaigarria da, "hobby"-tzat bezala hartzen dute. Batzuek hitz egingo diete, baina nik behintzat ez.

Zein da zure lore gustokoena?

Orkidea, larrosa eta lilia.

Noizbait oparitu al dizue lorerik?

Ez, behin ere ez. Gainera, uste dut oparitzen dizkidanarentzat nahiko "gogorra" izango zela. Segituan hasiko nintzen akatsak ateratzen. Deformazio profesionalaren ondorioa izango da.

USURBIL
O P T I K A



Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69(Gipuzkoa)



TXIRIBOGA
TABERNA
pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI



Kale Nagusia, 2
Tlf. 36 40 58

KALEBERRI



Ines Kamino

Frontoi atzeko parkea margotu dute

Zuria gorria eta urdina. **Gazanazpiko parkea** margotzeko erabili dituzten koloreak dira horiek. Maiatzaren 19an hasita, hastapen tailerrean aritu diren gazteak jo eta ke aritu dira parkea txukundu nahian. Ba zen ordua!. Txirristra moztu eta estalkia jarri ziotenetik bere horretan, berrikuntzarik gabe baitzegoen parkea. Orain behintzat umeak gustorago etorriko al dira!

Herriko artista gazteak ere aipatu behar. **Joxe Luis Elexpe, Susana Martin, Maite Agirresarobe** eta **Patxi Txikik** beraien lanak erakusgai dituzte Motzanean. Datorren **ekaiaren 1a bitartean** hor egongo dira zuen zain.

San Esteban kalean (Etxealdiako aldapan) **ez da giro**. Kamioiak gora, kamioiak behera, kotxeak gora, kotxeak behera... Izan ere, etxebizitza berriak egiteko **Jexux Mariren etxea** bota dute. Etxea botatzen hasi eta azpian zer aurkituko? 1852an hil zen **Gabriela Etxebesteren hilarria** eta honen ondoan ingeleseraz idatzitako beste harri haundi bat.



AGINAGA



Iratxe Begiristain

Ostrukak behi eta ardi ordez?

Joan den maiatzaren 8an epaitu zuten **Jokin Errasti** aginagarrak jakin du jada bere epaia. Dakizuenez, Jokin intsumiso izateagatik epaitu zuten, ez behin, birritan baizik. Kode penal zaharra edo berria aukeratzeko esan zioten lehen epaiketa hartan, eta berak ez zuen ez bata eta ez bestea aukeratu. Bigarren epaian fiskalak **6 hilabeteko atxiloketa eta 10 urteko inhabilitazioa** eskatu zuen, eta horixe izan da azken epaia. Gure auzokideak ez daki orain zer egingo duen. Epaiari errekurtsioa jarri ala ez pentsatzen ari dira.

Bestalde, hain famatu egin diren **ostrukak** gure artean



izan ditzazkegu laister batean. **Udalan ostrukak jartzeko** txabola egiteko **baimena** eskatu berri dute. Lehen behiak eta ardiak edukitzen ziren baserrietan, orain beriz beste animala batzuk jartzen dituzte, ostruka edo oreinak kasu. Beren haragia gero eta preziatuagoa da. Guztiak hone-lako animaliak jartzen hasten badira...

ATXEGALDE



Amagoia Mujika

Jatetxe berri bat jarriko dutenaren zurrumurrua

Zumartegi industrialdean **Jatetxea** jarri nahi dutela zabaldu da azken asteetan gure auzoan. Atxega jauregia hustiatzeko lehiaketa aspaldi ireki zen baina inor ez zen ausartu han ezer egitera. Orain **Zumartegi industrialdean** (lehenko monkloan) jatetxea jartzeko asmoa dutela dirudi.

Astean zehar industriaren egutegi eta ordutegira egokituko da eta horrez gain **haurrentzat jolastokia** irekitzea posible den ala ez galdetu dute udalean. Hala izango balitz, ez litzateke berri txarra izango.

SANTUENEA



Pako Agudo

Futbola Santueneako zelaian

Azken bi urtetan kiroldegian jokatu den txapelketa Santueneara itzuli da berriz. **Antxeta Futbol Aretoko** taldeak antolatutako txapelketak asteburuetan bizitasun piskat ematen dio gure auzoari. Euria egiten duenean zelaia arriskutsua bihurtzen da eta ikusleek ere ez dute babesik izaten, lastima.

Usurbil eta UEMA uztarri berean

Datorren ekainaren 15ean, igandea, Usurbilgo herriak UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean) sartzeko erabakia hartuko du. Honen inguruan Euskararen Aholku Batzarrak herriko elkarteekin batera hainbat ekitaldi antolatatu ditu.

EKAINAK 13, OSTIRALA

Gaueko 22.00etan

BIDEO EMANALDIA: "UEMA". Usurbilgo Udalaren eraginez, mankomunitatea zer den azaltzen duen bideo egin berria frontoian.

EKAINAK 14, LARUNBATA

Eguerdiko 12.00etan

MUSIKA KONTZERTUA: Kurtso amaierako kontzertua Udarregi Ikastola, Ageri Alde ikastetxea eta Zumarte Musika Eskolako ikasleen eskutik Oiardo kiroldegian.

Gaueko 22.00etan

HERRIKO TALDEEN JAIALDIA: Urtero Santixabeletan egin ohi den jaialdia aurten ekainean ospatuko da. Jaialdia frontoian egingo da eta besteak beste, ondokook parte hartuko dute:

- * Dantza taldeak
- * Pipiya Txalaparta eskolak
- * Zumarte Musika eskolak
- * Bota Punttuba Bertso eskolak
- * Irriu abesbatzak
- * Txistulari taldeak
- * Trikitilari eskolak
- * Organuaren Lagunak taldeak
- * Taratxun txarangak

* Martxoaren 10ean Aginagan hasita, auzoz-auzo Usurbilen euskararen egoera eta UEMAn helburuak ezagutarazi dituen erakusketa izan dugu ikusgai.

* Usurbilgo biztanleriaren %82,55a euskalduna denez eta UEMAn sartzeko %80ko kopurua behar denez, baldintza hori betetzen dugu.

* Euskaraz funtzionatu eta euskararen erabilera osotara normalizatzeko pausoak aspalditik ematen hasia zegoen Udala. XVI. mendetik udal ordenantzak euskaraz idazten ziren.

* Herriko taldeek ere eskaera egin dute Usurbil UEMAn sartzeko.

EKAINAK 15, IGANDEA

USURBILGO HERRIA UEMAN SARTUKO DA OFIZIALKI

Goizeko 11.00etan

Herriko txistularien esnadeia.

Eguerdiko 12.00etan

AGERIKO UDAL BATZAR BEREZIA: Usurbilgo Udalak batzar berezia ospatuko du Joxe Martin Sagardia plazan, jendeaurrean, UEMAn sartzeko erabakia hartzeko. Herriko udal ordezkarien adierazpenez gain, UEMako lehendakariaren hitzak, dantzariak, bertsolariak, Irriu abesbatza, txistulariak ... bertan izango dira.

Arratsaldeko 14.00etan

HERRI BAZKARIA frontoian. Txartelak salgai ohiko lekuetan. Bazkal ostean abeslariak, trikitilariak ...

Arratsaldeko 18.00etan

HERRI KIROLAK

* Auzoen arteko lehia paregabekoa
Parte hartzaileak: Aginaga, Kaleberri, Kalezar, San Esteban, Txoko alde eta Zubieta

* Idi dema

Arratsaldeko 19.00etan

ERROMERIA Herriko trikitilariekin.



H erorrek esan



Maider Makazaga

Kalezar
Guk jasotzen dugun ura

Arratzainen goialdean dagoen depositutik dator. Ura kloratu egiten dute eta edateko ez daukagu arazorik, oso ur ona da.



Seberiana Iribar

Santuenea
Altzondoko ura jasotzen dugula uste

nuen, baina ez, Sanestebanekoa hartzen dugu. Iturritik edaten dugu, eta ez daukagu inolako aitzakiarik, oso ona dago.



Garbiñe Zaldúa

Zubieta
Ba oraintxe ezingo nizueke esan

nondik datorren. Badakit Zubietan batzuek Andatzako ura jasotzen dutela eta besteak Añarbekoa, baina guk bietatik zein jasotzen dugun ezin dizuet esan. Bestela, nik beti iturritik edan izan dut.



Martin Goenaga

Zubieta
Hasieran etxe bakoitzak zuen bere

depositua. Gero, Urteaga baserrian jarri zuten depositua eta handik banatzen zuten. Duela 30 bat urte edo, tuberiak pasa zituzten eta Usurbilgoa jasotzen dut orain. Eta oso gustora nago.



Garbiñe Muguruza

Eguzkitza
Uste dut Añarbekoa dela. Baina

bere kalitatea oso ona da, etxeke guztiek behintzat iturritik edaten dugu ura.



Inaxi Otegi

Zubieta
Usurbildik jasotzen dugu ura.

Baina auzoko etxeetan ur desberdinak jasotzen ditugu; batzuek Michelin goikaldetik datorrena; besteek Andatzakoa eta beste batzuek Donostiakoa. Edateko nik nahiago dut iturrikoa botilakoa baino.



Angel Matxain

Kalezar
Ura Añarbetik jasotzen dugu. Baina baita ere

Arratzaingo depositutik. Batzuetan batetik eta besteetan bestetik; Arratzainen ura gutxi dagoenean Añarbeko ura hartzen dugu. Nik etxean beti iturriko ura edaten dut, eta kalitate onekoa da.



Juan Irazusta

Santuenea
Sanestebanetik etortzen da

etxean jasotzen dugun ura. Eta alde horretatik, ez daukagu inolako arazorik, guk inoiz ez dugu botilatik edaten, iturrikoa oso ona da. Bertakoarekin konpontzen gara.



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 2255



Ekaitze

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

Etxebizitza berriak eta berrikuntzak frontoian

Udalak lehen onspena eman die herrian sortu-ko diren lau etxebizitza inguru berri. Orain proiektu hauei enmendakinak egiteko garaia zabaltzen da.

Lehena **Txaramunto** izango da; gaur egun **Noaua!**ren egoitzatik hasi eta kamioien aparkalekuraino izango litzatekeena. Gune honetan 51 etxebizitza eraikiko dira, hauetatik 21 babes ofizialekoak izango direlarik. Bigarren etxebizitza inguru berria **Galtzaragainako** Igo faseko etxeen eta **Arriate** etxearen tartean kokatuko da. Bertan egingo diren etxebizitza guztiak babes ofizialekoak izango dira. Hirugarren gune **Kalezarko Aizperroenea** base-riaren aurrean egingo da. Eta azkena, gaur egun **Michelin** lantegiko aparkalekua eta **Arsuaga etxearen** bitartean

kokatuko da. Hemen banakako eta bi familientzako etxebizitza eraikiko dira, eta Arsuaga etxeke lorategia publikoa bihurtuko da.

Frontoiko berrikuntzak

Frontoiko proiektua osatzeko, **Udalak** eta **Kirol Patronatuak** berrikuntza batzuk gehitzea onartu dute. Proiektuz kanpo Udalaren bizkar egingo diren lanak honoko hauek dira: megafonia jarri, elektrizitatea osatu eta dema plazan argia ipintzea, toldo berria egokitzea eta kaleak isteko piboteak jartzeta. Guztira, berrikuntza hauek egitea 4.683.038 pezeta kostako da.

Bestetik, Kirol Patronatuak lan hauek hartuko ditu bere gain: ezker paretaren amaierako harlanduak jartzeta, sareak jartzeta, frontis gaina isteko krista-

la eta hau eusteko metalezko egitura jartzeta eta azkenik, ezker pareta altxatzea. Hau dena 2.813.557 pezeta kostako da.

Garbiketa makina


Laister gure kaleak garbituko dituen makina berria lanean ikusteko aukera izango dugu, Udalak onartu baitu kale-garbitzailea makina nori erosiko dion, **Arrizabal** enpresari, alegia. Guztira sei makina izan dira udalak aztertu dituenak. Haseran lehiaketa modura atera zen makinaren aukeraketa, eta bertara bi enpresa aurkeztu ziren. Baina bertako baldintzak ez zirela betetzen eta lehiaketa bertan behera utzi zuten. Ondoren, nahi zuten enpresek beren proposamena aurkezteko aukera ireki zen.

Baldintza bezala makinak 15 milioi pezeta inguru kosta behar zuen gehienez, eta Arrizabal enpresaren Johnson garbitzaile-aspiragailuak 15 milioi pezeta balio ditu.

Dirulaguntzak euskarari

Euskal Herriko ikastolen alde egiten diren festa haundiei dirulaguntza ematea erabaki da. Pasa den igandean Leioan ospatu zen **Ibilaldiari** 50.000 pezetako laguntza ematea erabaki da; **Nafarroa Oinezi** 75.000 pezeta eta **Araba Euskarazi** beste 50.000 pezeta.

Bestetik, **Sohütako Eperra** ikastolari 20.000 duroko laguntza eman zaio.



Johnson garbitzaile-aspiragailu berria erostea onartu du Udalak. 13 milioi pezeta gehi BEZa kostako da.

Lb T

HARATEGIA

Atxega Alde, 34
Usurbil

☎ 36 57 42

gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

BARATZA
FRUTADENDA

Aukera zabala
zure eskura

Eguzkitza, 4 USURBIL
Tlf. 36 49 81

Lasai edan daiteke iturriko ura

Usurbilgo uraren kalitatea eskasa da. Hori da behintzat Osakidetzak 1996an egindako azterketen ondorioa. Gipuzkoan dauden 88 herrietatik 19tan bakarrik izan da emaitza negatiboa eta gure herria hoiaren artean dugu. Hala ere, ez kezkatu. Gure etxeetan edaten dugun iturriko urak ez du tripakominik sortzen. 1996an 139 muestra aztertu ziren eta %12,2a soilik zen ur ez edangarria.

Usurbilgo ura Añarbeko mankomunitateak aztertzen du. Herriko leku ezberdinetako urak hartzen dituzte, Kaleberriatik, Aginagatik, Txiki-erditik, Zubietatik eta Kalezarren dagoen Añarberen depositotik, ur hori edangarria den ala ez zehazteko. **Begoña Larrondo** Añarbeko Mankomunitateko aztertzailearen arabera, "azterketak egiterakoan bereizketa bat egiten dugu: Añarbek hornituriko zonaldea eta Erroizpek horniturikoa bereizten ditugu. Guztira 139 muestra aztertu genituen 1996an, 51 Añarbekoak eta 88 Erroizpekoak".

Emaitzak ez ziren oso onak izan, ez behintzat Osakidetzak emandako datuen arabera. Izan ere, Usurbilen 1996. urtean uraren kalitatea eskasa izan dela argitara eman du Osakidetzak. Erroizpeko ura banatzen den zonaldean egindako azterketetatik %17an urak ez zituen betetzen Osakidetzak eskatutako baldintzak. Añarbeko uren portzentaia, aldiz, %3,9koa izan zen. Aztertutako mestren %12,2a ur ez edangarria izan zen Usurbilen. Osakidetzaren esanetan, ur ez edangarriaren portzentaia %5etik behera duten herrietako ura ona da, %5 eta %10 bitartekoak hobetu daitezke eta %10etik gora-



Urdaia gako Erroizpeko presako ura edaten genuen denok 1994 arte

koak kalitate eskasekoak dira.

Begoña Larrondoren ustez datu hauek ez dira kezkatze-koak. "Muestra bat hartu, eta arazorik ez badago, beste hilabete batean hor ez da azterketarik egiten. Baina emaitza negatiboa bada, uraren kalitatea hobetzeko neurriak hartu eta hobetu arte etengabe azterketak egiten dira. Añarbetik bidaltzen dugun urak Osakidetzaren baldintzak betetzen ditu.

Erroizpen klorazio sistema aldatu dutenetik ez da ur ez edangarriaren kasu bakar bat ere eman

Azterketen %3,9an bakarrik izan da ura ez edangarria, horrek esan nahi du ura ona dela. Portzentaia igo dituen Erroizpeko ura izan da, zuzendu ziren ur ez edangarriaren portzentaia %17koa izan baitzen 1996. urtean".

Nekazaritza, zerbitzu eta ingurugiroko batzorde buru

den **Joxe Luis Arrastoa** eta Usurbilgo uren mantenimenduz arduratzen den **Julian Bengoetxeak** argi dute lehen erabiltzen zen gasen bidezko klorazio sistema zela ur edangarri portzentaia horren errudun. "Lehen gasa bidez kloratzen zen Erroizpeko ura. Usurbilgo azken muturretara iristerako gas hori lurrundu eta kloroa galtzen zuen. Honela, Txikiardin edo Aginagan azterketak egiterakoan behar adina kloro ez zuen edukitzen. Hori konpontzeko kloro asko botatzen genion urari, baina hala ere, batzutan, kloro gutxi-rekin iristen zen. Zergatik? Euri egunen ondoren, zikinkeria kentzeko askoz kloro gehiago irensten du urak euria egiten ez duenean baino. Beraz, bi puntu horietan tarteka ura ez zen edangarria eta Usurbilgo uren ez edangarritasunaren portzentaia igotzen zen. Horrek ez du esan nahi ura edateko txarra zenik, Osakidetzak eskatzen duen kloro kantitatea ez zuela baizik".

Aurten, ordea, ez da berdina gertatuko. Urtarrilean klorazio sistema berria jarri zen Erroizpen eta ordutik ona egin

diren azterketa guztietan ez da ur edangarri ezaren kasu bakar bat ere eman. Orain, ura gasa bidez kloratu beharrean likidoa botatzen diote. Honela, kloroak ezin du lurrundu. Beraz, momentu honetan Usurbilgo uraren kalitatea guztiz ona da.

Usurbildarrok ez dugu ur berdina edaten. Kale nagusia da muga. Kale nagusitik behera dauden auzoak (Santuenea, Zubieta, Urdaiaga, Txokoalde, Aginaga...) Urdaiagan dagoen Erroizpe presako ura hartzen dute eta gora daudenek Añarbekoa. **Joxe Luis Arrastoa** zinegotziaren esanetan, *"Patri jatetxeko ura eta Txurru tabernakoa ez dira berdinak. Lehenengora Añarbetik dator ura eta bigarrenera Erroizpetik. Azken finean, Kale nagusiak egiten du muga."* Hala ere, gaur egun Kalezarren Erroizpeko ura edaten da. Eguzkitzako lanak hasi

zirenean hodi bat apurtu zen eta urbanizazio berria egin arte ezingo dute Añarbeko ura jaso. Hauxe gain, Kalezar eta Aginagako baserriak hornitzen dituen Arratzaingo depositoa dago eta Aginagan Kuxkulluko presa, nahiz eta hemengo ura orain ez den erabiltzen.

Usurbildarrok ez dugu ur berdina edaten. Kale nagusitik behe-rakoek Erroizpeko ura, gorakoek Añarbekoa

1994ko abuztuan hasi zen Usurbilgo udala Añarbetik ura hartzen. Ordura arte Erroizpeko presatik banatzen zuten ur guztia. Baina lehorteak etortzean ur eskasia izaten zen, eta honekin batera ur

mozketak. Añarbekin ordea, ez dago ur faltaren arazorik. Ura gero eta garestiagoa dela da Añarberen arazoa. Iaz 26,5 pezeta ordaintzen zituen udalak m³ bakoitzeko. Aurten berriz, 34,8 pezeta ordaindu beharko ditu.

Edaterakoan ba al dago alderik Añarbeko eta Erroizpeko uraren artean? Ezberdintasun garbi bat dago: Añarbeko urak kloroaz gain fluorra du, Erroizpekoak aldiz, ez. Ur banatzaileak urari fluorra botatzera behartuak daude, Osakidetzaren aginduz. Hortzetako kariesak murriztea da neurri honen helburua. Isidoro Iturraldek dioenez, *"honen inguruan istilu ugari izan dira. Batzuen ustez fluorra ez da ona, urteetan zehar fluorra hartzen egoteak gorputzarengan eragin kaltegarriak izan ditzakeela uste dute."*

Josu Aranberri

Isidoro Iturralde: "Usurbildarrok ur ona edaten dugu"

Isidoro Iturraldek 15 urte egin ditu Usurbilgo urak aztertzen. Auzo ezberdinetako uren egoera udalari ezagutaraztea zen bere eginkizuna. *"Ura leku ezberdinetatik hartu eta niri ekartzen zidaten. Nik aztertu ondoren, ura edateko modukoa zen ala ez, zer falta zitzaion, kloroaren gorabeherak... udalaren jakinean jartzen nuen guztia, udalak beharrezkoak ziren neurriak har zitzen. Azken finean orain Añarbeko Mankomunitateak egiten duena"*.

Orain egiten diren uren azterketak gertutik jarraitzen ditu. *"Añarbe ura saltzen duen enpresa da. Udalak ura erosten dio eta haiek uraren kalitatea ona izan dadin ahaleginak egin behar dituzte. Hauen azterketa guztien berri izaten dut eta arazorik badago, jakinaren gainean jartzen naute honen berri Osakidetzari emateko"*.

15 urte ura aztertzen eman ondoren ondo asko ezagutzen ditu Erroizpe presako urak. Ura berdina izan arren azpiegitura aldetik hobekuntza handia egin dela uste du Isidorok. *"Ni hasi nintzenez presaren egoera txarra zen. Geroztik lan asko egin da, depositoak berritu,*

uraren garraiorako hodiak estali...".

Baina zein da ur hobea Añarbekoa ala Erroizpekoa? Bere ustez kalitatezko ura edaten dugu usurbildarrok, baina ezaugarri ezberdinak dituzte. *"Añarbeko urek kalitate aldetik kontrol haundiagoa dute. Enpresa haundi bat izanik bitarteko gehiago dituzte. Honek ez du esan nahi ur hobea denik. Erroizpekoa oso ur ona da, ezaugarri bikainak ditu"*.

Osakidetzaren arabera 1996an Usurbilgo uren kalitatea eskasa izan dela agertu da egunkarrietan. Isidororen ustez horrek ez du esan nahi edaten dugun ura txarra denik, azterketa batzuetan, agian gehiegitan, zenbait arrazoi-gatik uraren kalitatea behar baino eskasagoa izan dela baizik. *"Euri egunetan ura zikindu daiteke, filtrazioak egoten dira; azpiegitura aldetik arazoak egon daitezke; kontaminazioa gero eta nabarmenagoa da, urbanizazio gune gehiago dago, zikinkeria, manantialak ez daude edateko moduan... Guzti honek edateko uran eragina du, eta hori izan daiteke Usurbilen kasua"*.

Ikastolaren egunaren aurretik bi hitzaldi izan dira giroa berotzeko



Lehenengo hitzaldia hilaren 21ean izan zen. "Hirugarren Mundua. Ipar/Hego arteko desberdintasunak" izeneko hitzaldian **Juanma Balerdik**, "Euskal Fondoa" erakundeko ordezkariak eta **Karmele Heviak**, bertako partaide den herriko zinegotziak, hitz egin zuten. Euskal Fondoa EAEko 53 udaletzek osatzen dute. Ertamerikako herritarrei laguntzeko proiektuak ateratzen ditu aurrera. Usurbilek Nikaraguan nekazal kreditu bat eman du txerriak erosi eta hauen haragia ekoizteko.

Bestalde, hilaren 27ko hitzaldian "Ikastolen historia, eta etorkizuna" eta "Partaide-ren zergatia, oraina eta geroa" izan zuten hizpide **Antonio Campos**, Ikastolen Elkarteko lehen-dakariak eta **Jose Luis Sukia** Partaideko gerenteak.

Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari onenak Oiardon bildu ziren

Gipuzkoako XVII. Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ospatu zen maiatzaren 23an Oiardo kiroldegian. 300 lagun inguru bildu ziren eta giro ezin hobea sortu zen. Bapateko saioa bi mailatan banatu zen eta txapelak ere bai. Handien mailan **Jon Martin oiartzuarra** izan zen txapela jaso zuena. Txikien mailan, berriz, Zizurkilgo taldeak lortu zuen lehen postua.

Bertsopaperetako sariak ere egun berean banatu ziren. 16 txapela jarri ziren lau mailetako irabazleen buru gainera. Tamalez, parte hartu zuten hiru usurbildarrek ez zuten zorte hori izan. Baina tira, Santixabeletako bertso paper lehiaketako aukera gelditzen da oraindik!



"More-Power to your Elbow", Ipar Irlandatik Usurbila



Oiardo kiroldegian Ipar Irlandako rock-folk doinuak nagusitu ziren joan den maiatzaren 16an. "More-Power to your Elbow" taldeak kontzertu ikusgarria eskeini zuen bertan bildu zen jendearen gozamenerako. Taldeko zortzi kideek ordu eta erdi jardun zuten, ia atsedetik gabe gitarra, eskusoinua, baxua, bateria, bibolina, organua eta flautak astinduz. Irlandako doinuez gain **euskaraz ere abestu** nahi izan zuten, eta entzuleen laguntzarekin "Guk euskaraz, zuk zergatik ez?" abestu zuten. Ez hori bakarrik, Ipar Irlandako jatorrizko dantzak ezagutzera emateko asmoz, taldeko bi kidek, birritan egin zuten dantza.



Ez zen giro **16. Sagardo Egunean**. Sagardo botailak nonahi, basoak ere bai eta jendea zer esanik ez. 7.000 baso inguru saldu ziren, banatzeko zeuden 5.400 sagardo botailak segituan hustu ziren eta sagardo botatzaileek etengabe la egin zuten. Arratsaldean egin zen sagardo botatzaileen lehiaketan, berriz, ez zen ezustekorik izan. lazko irabazle bera aurten ere, **Kerman Errekondo**. Bigarren onena **Arantxa Unanue** izan zen eta hirugarrena **Mikel Arriaga** (aita).

**MIKEL LABOA
ETA HERRITARRAK**

Mikel Laboak 1995ean Gasteizen Korrika 9ren ekitaldien barruan eskaintako kontzertuaren zuzeneko diska kale-ratu du. **Jesus Artze** txalaparta jotzen entzun dezakegu bertan.

**USURBIL F.T
1. JUBENILERA**

Usurbil F.T jubeniletako taldeak 1.mailan jokatu du datorren urtean. Bost urteren ondoren, 2. mailatik lehen mailara igotzea lortu dute, igoerako ligaxkan hirugarren amaitu eta gero. Zorionak!



Abialdian-en deia jarraituz, 40 usurbildar inguru abiatu ziren goizeko 9.30etan Bordatxo mendira. Irteera emateko etxefero bat bota zuten, baina gora igo beharrean beheruzko bidea hartu zuen eta izugarritzko zarata atera zuen. Akats tekniko hau izan zen herri osoan igande goizean entzun zen soinuaren arrazoia. Baina sustoa pasa ondoren, Bordatxorako bidea hartu zuten. Ikurrina jarri, argazkia atera eta Arratzain sagardotegira hamaiketako egitera!

**MUSIKA JOZ
TRINTXERPEN**

Maiatzaren 24ean Musikaldi eguna ospatu zen Trintxerpen. 24 herritako 2.300 musika jole elkartu ziren, tartean Usurbilgo Txistulari taldea, Zumarteko Orkestra eta Eskusoinu taldea.

**PRODUKTU
TURISTIKOAK**

Angula, Sagardo Eguna eta Atxega jauregia dira Eusko Jaurlaritzako turismo sailak Usurbilen interesgarri ikusten dituen produktu turistikoak. CD Rom batean daude kontsultatu nahi duenarentzat.




Sagardo Egunarekin batera, **Senideak-en Eskualdeko enkartelada** Usurbilen egin zen arratsaldeko 13.00ean. Jende ugari bildu zen euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz. Usurbilgo presoekin batera eskualde osoko preso-en kartelak ere ikus zitezkeen tartean.



Maiatzaren azken igandean, 25ean, herriko 39 haurrek **Lehen Jaunartzea** egin zuten. Hauetatik 33k euskaraz egin zuten eta seik erdaraz. Nolanahi ere, orain dela urte batzuetako kopurua ikusita, nabari da demografiaren beherakada, bai horixe!

Arg: Ekaitz

KIROL KOPLA



**Enrike
Huizi**

Herriko pelota ekintzen berri emateko asmotan natorkizue. Halere, ez nituzke ahaztu nahi herrian dauden kirol jarduera guztietan parte hartzen duten pertsonak: entrenatzaileak, begiraleak, kirolariak berak... denentzako agur bero bat.

Pelotari dagokionez Gipuzkoako herri arteko txapelketan kanporatuak izan gara. Lehenengo bi kanporaketak gainditu ondoren (Zizurkil 6-0 eta Hernani 3-3 tanteoz) final laurdenetan Azkoitia etsai gogorra egokitu eta 5-1 galdu dugu.

Etxeko partidua kanpoan jokatu behar izan ditugu: Lasarten eta Zizurkilen. Hala ere jendearen erantzuna oso ona izan da, eta eskerrak ematen dizkiogu. Hurrengo urtean autobusa jarri beharko dugu!

Izan ere, herri arteko txapelketa berezia da, herriak parte hartzen du: pelotariak, jarraitzaileak... talde bat osatzen dugu, denok jartzen dugu zerbait.

Ezin ahaztu txapelketa honetan eskuetatik gaizki ibili diren pelotariak: **Jon Arruti**, **Mikel Ibarreta** eta **Imanol Matxain**. Gogorra izan ohi da egoera hori, baina animo, sendatuko zarete eta!

Pelota kontua ez da herri arteko txapelketarekin amaitzen. Hor daude urte guztian zehar hainbat herritan jokatzen ditugun txapelketak. Herriko haurrak ere ez daude lo, eta hor dihardute pelotan.

Orain frontoi berria estreinatu eta udaran urteroko pelota txapelketa antolatzeke asmoa dugu. Ea ba herritar guzti-guztiek probatzen duten frontoia, pelotakada pare batez bada ere!



Ezkerretan, Haimar Zubeldia, 23 urtez azpiko Euskadiko txapelduna. Bere ondoran, Joseba, jubeniletan Gipuzkoako txapelduna

Urdaiagako anaiak errepidean nagusi

Aurreko alean aurreratzen auzuegen **Haimar Zubeldia** indartsu zebilela. Eta ez genbiltzan batere oker. Bera dugu 23 urtez azpiko Euskadiko txapeldun berria. Maiatzaren 25ean Murgian (Arabak) jokatu zen elite eta 23 urtez azpiko txirindularien Euskadiko Txapelketan garaipena lortu zuen. 20 urte eduki arren elite mailan ere bera izan zen nagusi, denboraldiko hirugarren garaipena lortuz. Maiatzaren 14tik 17ra Bidasoako itzulian izan zen Usurbildarra. 23 urtez azpikoentzat den sona haun-

diko proba honetan laisterketa bikaina burutu zuen Haimar Zubeldiak, hirugarren postua eskuratu baitzuen.

Anaia txikia ere ez zaio atzean gelditzen. Bata afizionatuetan eta bestea jubeniletan. Bata Euskadiko txapelduna, eta bestea Gipuzkoakoa. Izan ere, **Joseba Zubeldia** dugu jubenil mailako txapeldun berria. Elgoibarren maiatzaren 17an izan zen laisterketan garaipena lortu zuen Oa behekoak. Ea ba bide honetatik jarraitzen duten biek!

Usurbildarrak Lasarteko pala txapelketan

Imanol Zumeta eta Patxi Arruti dituzue irudietan. 1997ko Ostadar Kirol Fundazioaren III. Gomazko Pilotarekin egiten den pala txapelketan bigarren postua eskuratu zuten. **Elias Pierola** eta **Eneko Iradiren** aurka 30 eta 28 galdu zuten. Urduritasuna izan omen zen

beren etsai nagusia. Orain arteko bi txapelketetan usurbildarrak izan dira nagusi. 1995ean **Imanol Zumetak** eta **Jesus Trevijanok** irabazi zuten, eta 1996an aurten bigarren postua eskuratu duen bikote berak, **Imanol Zumetak** eta **Patxi Arrutik**.



Dantza Taldea, herriko dantzarien harrobia

Makinabat herritar pasa da honez gero Usurbilgo dantza taldetik. Izan ere, ez da gaur egungoa usurbildarrok hankak astintzeko daukagun gogo hori.

Usurbilgo dantza taldea 1973-74. ikasturtean sortu zen. Guraso talde batek dantza talde baten beharra ikusi zuen. Landaberriko ikasleak herrira hurbildu nahi zituzten, izan ere Lasarten bazegoen dantza taldea. Beraz, Usurbilen sortu zuten bat! Lehenengo irakaslea Lasartetik ekarri zuten: **Felix Telleria**.

Dantzak erakutsi

Taldearen helburua oso argi zuten: herri mailan dantza talde bat sortu eta herriko haurrei Euskal Herriko dantzak erakustea. 1975eko Santixabeletan egin zuten lehen ekitaldia usurbilgo dantzariak. Gaur egun ere ohitura honek jarraitzen du, herriko festen bezperako Kultur jaialdian aurkezten baititu dantza taldeak urte osoan gogoz entseiatutako dantzak, herriko beste taldeen ekitaldien albon, honez gain, auzoetako fes-

tetan ere ez dute huts egiten dantzariak.

Gaur egun 130 haur eta heldu dira dantza ikasten dabiltzanak. Hauetatik gehienak neskak dira, baina azken urteetan mutil askok eman du izena. **Ainhoa Labaka**, dantza taldeko irakaslearen esanetan, *"Duela bost bat urte ia mutilik gabe geratu ginen taldean, baina orain bi talde ditugu. Inoiz ez dugu gaur egun adina ikasle eduki"*. Hauetatik gehienak 6 eta 14 urte bitartekoak dira, baina helduen talde bat ere badago, 25 lagunek osatzen dutena. *"Gaur egun dantzara datorrena nahi duelako eta gustatzen zaiolako da"*.

Irakasle ugari

Dantzariak ikas dezaten, ordea, irakasleak behar dira. Une honetan 10 dira lan honetan dabiltzanak: **Ainhoa Labaka, Aitor Egileta, Arantxa Txapartegi, Eider Jauregi, Aroa Alkorta, Lur Etxeberria, Amaia Zumeta, Josune Tapia, Aitor Labaka** eta **Aitor Irazusta**. Ainhoak azpimarratu duenez, *"aurtengo ikasturtean lau ira-*

kasle berri ditugu, eta iaz beste bi sartu ziren. Alde horretatik ikusten dugu gure lanak jarraitpena baduela, eta asko pozten gaitu horrek".

Baina irakasleez gain, behar beharrezkoak dira dantzei musika jartzen dieten txistulari eta trikitilariak: **"Aloña Azpiroz, Ainhoa Azpiroz, Olatz Leoz eta Arantxa Errasti** txistulariak eta **Nere Eizagirre** eta **Maialen Arruti** soinujole gabe ere ezingo genuke ezer egin. *Asko eskeretzen dugu hauen lana"*, dio Ainhoak.

Irakasle bakoitzak bere taldea du, nahiz eta esperientzia gehien dutenek berriei haseran laguntzatxo bat eman.

Aitzindarien begiradapean

Guzti honetaz gain, ordea, dantza taldea sortu zuten guraso batzuek ere taldea gertutik jarraitzen dute: **Pakita Uranga, Mari Karmen Larrañaga, Arantxa Odriozola** eta **Koro Iribar**. *"Urtean behin gutxienez bilera bat egiten dugu beraiekin, eta urteko martxa eztabaibatzen dugu elkarrekin. Hauek dira "xuxen" eramaten gaituztenak"*, esaten du Aitorrek.

Dantza taldeak 25 urte beteko ditu 2000. urtean, eta ordurako zerbait berezia antolatu nahi dute, nahiz eta oraindik ziur ez jakin zer egingo duten. Baina ordurarte, *"herriko haur, gazte eta heldu asko pasa dira hemendik, eta guztiei eskertu nahi genieke dantza taldean izan duten parte hartzea"*.



Usurbildar asko pasa da dantza taldetik, eta badirudi aurrerantzean ere horrela izango dela.

Idoia Torregarai

Ikasle, guraso eta irakasleen topagunea

Datorren ekainaren 1ean Udarregi Ikastolaren eguna ospatuko da.

Gaur egun, ikastolan 381 ikasle, 30 irakasle (25 jornada osoz eta 5 orduka) eta 3 langilek egiten dute lan. Ikastolaren eguna ospakizun eguna da; ikasle, guraso eta irakasleen bilgunea.

Ikastolaren eguna ikastola berriaren inaugurazioaren urte berean ospatzen hasi zen, 1988. urtean. Egun honetan jai giroa nagusi bada ere, ez da soilik horretara mugatzen.

Juanjo Gomez, Udarregi ikastolako zuzendariaren esanetan, "ikastolaren eguna aitzakia bezala hartuz, kultur aste bat ere antolatzen dugu". Horren adibide, prestatu dituzten hitzaldiak dira: "Hirugarren mundua. Ipar/Hego arteko desberdintasunak", "Ikastolaren historia eta etorkizuna. Partaide-ren zergaitia, oraina eta geroa" eta "Haur Hezkuntzako haurraren nortasun garapena".

Ekainaren 1ean egun handia

Baina ekintza nagusiak Ikastolaren Egunean bertan biltzen dira. Goizetik hasita, txistularien laguntzaz alai esnatzeko aukera izango dugu; ondoren, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleen jokuak, ikasleen eskulanen erakusketa eta Haur Hezkuntzako haurren jaidldiaz gozatzeko parada izango dugu. Amaitzeko, herri bazkaria egingo da jai giroan frontoian.

Guztion ikastola

Ekintza guzti hauen garrantzia azpimarratzen du Juanjok: "Ikastolaren Eguna irakasle, ikasle eta gurasoen eguna da; ikastola osatzen dugun guztiona. Baina baita ikastola berea sentitzen duten guztiena ere. Ikastola irekia da. Ezin da ulertu ikastetxe bat irla baten moduan isolatua. Herrian antolatzen diren kultur ekintzetan parte hartu eta ekarpenak egiteko prest egon behar du. Eta

Udarregik horrela egiten duela uste dugu".

Egun honetako ekitaldietaz gain, antolaketan ere jende ugari hartzen du parte. Hezkuntza maila desberdinetako irakasle koordinatzaileek eta zuzendaritza batzordeak antolatzen dute kultur aste hau. Horretarako, garrantzitsuak eta gertukoak diren gaiak aukeratu eta lotu behar dituzte, jendearentzat ahalik eta interesgarrienak izan daitezten: "Hitzaldiak batez ere gurasoei daude zuzenduta, baina herri guztiak har dezake parte. Nire iritziz aurten oso hitzaldi interesgarriak antolatu ditugu, eta batez ere oso garrantzitsua da ikastolen historia landu duena. Ikastolak garai desberdinak izan ditu eta gaur egun gauden egoera ezagutu eta noruntz goazen jakitea oso garrantzitsua dela uste dut".

Irakasleez gain, ordea, ikasle, guraso eta zenbait elkarte ere antolaketaren ezinbesteko zati dira. "Haurren ikuskizuna prestatzen guztiok inplikatzeko gara. Bestetik, bazkarian ere gurasoek izugarrizko lana egiten dute. Baita **Andatzpe, Peña Pagola, Mahaspildegia eta Ibai Ondo** elkarrekin ere, guzti hauen laguntzaz ere prestatzen baitugu bazkaria".

Gonbidapena egin dago; ikastola berea sentitzen duten guztientzat topagune atsegina izan dadila.

Idoia Torregarai



Ikastolaren Eguna gurasoentzat primeran pasatzeko aitzakia denik ezin da ukatu.



TABERNA

Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17

MAHUKA

GAZTE DENDA

Orain, udaberri
puntako m



Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

Lehiaketa

Hara zer topatu dugun oraingoan: Noaualren maskota. Besapean aldizkari bat eta Noaualren kamiseta. Dotorea, eh! Baina, zuek ba al dakizue

NON DAGOEN GURE MASKOTA?

Lehiaketaren erantzunean maskota herriko zein lekutan dagoen esan beharko diguzue. Eta horrekin batera, **zein izen jarzea** proposatzen diguzuen.

Animatu eta bidali erantzunak ekainaren 9a baino lehenago kale nagusiko gure egoitzara. **Antxeta** jatetxean bi pertsonentzako afari bat zozketatuko dugu.



Londreserako hegazkin bidaia irabazi zuen **Iñaki Zugastik**, baina mareatu egiten omen da, eta nahiago izan du **Patri** jatetxeko afari goxoarekin gelditu. **Sergio Montesek** lagundu omen zion erantzun zuzena asmatzen, eta biak afaritara joateko desiatzen agertu ziren. Eta Javier, berriz, menua pentsatzen.

Eguraldi ederra egin zigun Sagardo Egunean, eta gustora edan genuen sagardoa, bai. Hori ez dugu ukatuko, berehala hustu baitziren **45** sagardo postuetako botilak. Hala ere, batzuk behintzat denak zenbaterira iritsi zireten, eta esan bezala, **45** jarri ziren.

Gure eskuetara ez dira hainbeste erantzun iritsi, eta **Zumeta** jatetxerako zozketatu dugun afaria ere ez da hainbesterentzat izango. Bi pertsonentzako izango da, eta bat zein izango den badakigu: **Milagros Pagola**.

Laguna aukeratzea, zure esku, eta besteok, Sagardo Egunean edandako sagardoarekin konformatu beharko.

Komikia



Imanol Txapartegi

PORTUARRAUNE

**ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK**

Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99



Aginaga
☎ 36 27 73

SEKAÑA BEREZITASUNAK
Txerrikumea,
Tuleta eta Arraia

Egin ezazu zure
publizitatea
Noaua!ren
orrietan, herritar
guztiengana
iristen gara

MAIATZAK 30 ostirala


- **Senideak**-en manifestazioa. Arratsaldeko **20.00**etan.
- **Ikastolaren Eguneko** ekitaldien barnean, "**Haur Hezkuntzako haurren nortasun garapena**" hitzaldia. Hizlaria: Maria Jesus Uranga, psikomotrizista-hezitzailea. Arratsaldeko **17.00**etan ikastolan.
- **Aitzaga Elkartearen III. urteurrenaren** ekitaldien barnean, "**En el nombre del padre**" filmea ikusgai izango dugu pantaila handian. **Aitzaga Elkartean**, gaueko **20.30**etan.
- **Akerra gaztetxeak "Ehun Kilo eta "Txarkey"**en kontzertua antolatu dute. **Gaztetxean**, gaueko **23.00**etan. Sarrera: 300 pezeta.

MAIATZAK 31 larunbata

- **Mikel Laboak** bere KD berria, "**Zuzenean**" aurkeztuko du **Hernaniko kiroldegian** gaueko **22.30**etan. Bertan **Jexux Artzek** parte hartuko du txalaparta jotzen. Sarrera aldeaz aurretik 800 pezeta. Bertan, 1000 pezeta.
- **Aitzagaren III. urteurrenaren bazkaria** egingo dute bertako bazkideek. Aitzagan arratsaldeko **14.00**etan.

MAIATZAK 1 igandea

- **Ikastolaren Eguna:**
*Goizeko **9.00**etan txistularien esnadeia.
***9.00**etatik **11.30**etara: **Lehen Hezkuntza eta DBHko** ikasleen jokuak.



Andatza KKEk Pirineota irteera antolatu du datorren **ekainaren 7** eta **8**rako. Irteera **Respumoso aterpetxera** izango da (**Balaitus-Faxa**). **Izena emateko epea ekainaren 1**ean amaituko da, eta nahi duenak **Txiriboga** tabernan eman dezake izena. Irteera ordua jakinaraziko da

- ***11.00**etatik **13.00**etara: **Ikasleen eskulanean erakusketak.**
- ***12.00**etatik **12.45**etara: **Haur Hezkuntzako** haurren jaialdia.
- ***14.00**etan: **Herri bazkaria** Usurbilgo frontoian. **Ondoren, trikifilariak.**

MAIATZAK 2 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren kontzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

MAIATZAK 6 ostirala

- **Aitzaga Elkartearen ez-ohizko batzarra.** Aitzagan arratsaldeko **19.30**etan.

MAIATZAK 7 larunbata

- **Usurbildik kanpo** jaiotzen diren euskaldunen **bazkaria** egingo da **Aginaga Sagardotegian.**

MAIATZAK 9 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren kontzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

OHARRAK

- ✓ **Gure Pakea Zahar** egoitzak datorren ekainaren 21erako **Urkiolara** antolatu duen **bidaiara** joateko **izen emateko epea ekainaren 2, 3 eta 4a** izango da. Goizeko **11.00**etatik arratsaldeko **13.00**etara. Telefonoz ere izena eman ahal izango da: **37 32 28.**
- ✓ **Maite Agirresarobe, Susana Martin, Pelex eta Patxi-Txikiren** **pintura eta egur erakusketak** ikusgai jarraitzen du datorren **ekainaren 1a bitartean** Motzaneako azoiko lokalean aurkituko dituzu (Txiriboga tabernaren aldamenean). Astegunetan: **17.00**etatik



BAZKIDE TXARTELA
5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____



21.00etara. Asteburuetan: goizez, 12.00etatik 14.00etara eta arratsaldez, 18.00etatik 21.00etara.

- ✓ **Pisua saltzen dut** kale nagusian. 3 gela, sala (tximiniarekin), 2 komun, sukaldea (jarria) eta ganbararekin. Interesatua dagoenak telefono honetara dei dezake: 37 29 22.
- ✓ **Eguzkitako betaurrekoak galdu dira kiroldegian.** Inork aurkitu baditu, deitu telefono honetara: 36 46 31.
- ✓ **Etxealdian pisua salgai.** Berriztatu berria da eta altzariez hornituta dago. Bertan bizitzeko jartzeko prest. Deitu: **37 26 79.**

LANPOSTUAK

- ⇒ **Usurbilgo Udala.** Udaltzain bat behar da. Informazio gehiago udaletxean.
- ⇒ **Errenteriako Udala. Bi administrari laguntzaile** behar dira. Baldintzak: 18 eta 55 urte bitarteko edukitzea, eskola graduatu, lehen mailako Lanbide Prestakuntza edo baliokide den titulua izatea, 2. hizkuntz eskakizunaren jabe izatea. Informazio gehiago Errenteriako udaletxean eta GAOko 89. zenbakian.
- ⇒ **Errenteriako Udala. Ingurugiroko teknikari bat** behar da. Bete beharreko baldintzak: injeneru tekniko, Unibertsitate diplomaduna,

arkitekto tekniko edo LH3 edo baliokide den titulua edukitzea; 3. hizkuntz eskakizuna edukitzea. Informazio gehiago Errenteriako udaletxean eta GAOko 89. zenbakian..

- ⇒ **Zizurkilgo Udala. Liburuzain bat** behar da. Izena emateko epea: 97-VI-2. Informazio gehiago GAOko 82. zenbakian.
- ⇒ **Errenteriako Udala. Bi operario** behar dira. Informazioa gehiago, Errenteriako udaletxean edo GAOko 89. zenbakian.
- ⇒ **Arexabaletako Udala. kiroltako teknikari bat** behar da. Izena emateko epea: 97-VI-2. Informazio gehiago GAOko 82. zenbakian aurkituko duzu.

maitzak

FUTBOLA

Maiatzak 17-18

Usurbil F.T- Oiarzun, 3-2 (jub. m)
Oiarzun- Usurbil F.T, 2-3 (nesk.)

Maiatzak 24-25

San Ignacio- Usurbil, 0-1 (jub.)

ESKUBALOIA

Maiatzak 17-18

Usurbil- Leizaran, 25-8 (kad., n)
Usurbil- Ereintza, 28-25 (kad., m)

Zarautz- Usurbil, 11-15 (jub. m)

Urola- Usurbil, 20-26 (err. m)

Maiatzak 24-25

Usurbil-Ormaiztegi, 22-23 (er. m)

Usurbil- Bidebieta, 17-25

SASKIBALOIA

Maiatzak 17-18

Usurbil- Kevian, 42- 78 (sen., m)

Maiatzak 24-25

Lazkao- Usurbil, 53- 31 (sen m)

ARETO FUTBOLA

Maiatzak 4

Gubi- Antxeta jatetxea, 1-1
Antxeta jat.- Boulevard, 5-4.

PELOTA

Maiatzak 16

Azkoitiak 3 Usurbilek 0

Maiatzak 23

Usurbilek 2 Azkoitiak 1



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA



PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



ZUMETA
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,
bazkariaketaafariak
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"
3.200 pta.

Zuenzaingeratzengara!

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85



1997ko Sagardo Eguneko bazkide argazkia